

**FORU DEKRETU HONEN ENTZUNALDIA ETA JENDAURREKO  
INFORMAZIOA EMATEKO TXOSTENA: FORU DEKRETUA, ZEINAK ARAUAK  
EMATEN BAITITU NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXE  
PUBLIKOETAN ETA PRIBATU ITUNDUETAN IKASLEAK ONARTZEKO**

Ezarritako prozedurari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ematen dituen foru dekretuaren testua Gardentasunaren Atarian argitaratu zen 2021eko urtarrilaren 4tik 25era, biak barne.

Aldez aurreko kontsultaren xedea da foru dekretu berriaren eraginpean gerta litezkeen herritarren eta ordezkariak duten erakundeen iritzia jasotzea honako aldaketa hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta aukeran dauden alternatibak, arauemaileak eta ez arauemaileak.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko Eskolatzeko Bulegoaren posta elektronikoan sei mezu jaso ziren, alegazioak zituztenak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ematen dituen foru dekretuaren testua aldatzeko:

- 1. alegazioa: herritar batek 2021eko urtarrilaren 15ean egina
- 2. alegazioa: herritar batek 2021eko urtarrilaren 20an egina
- 3. alegazioa: herritar batek 2021eko urtarrilaren 20an egina
- 4. alegazioa: herritar batek 2021eko urtarrilaren 25ean egina
- 5. alegazioa: Hizkuntza Eskubideen Behatokiak 2021eko urtarrilaren 25ean egina
- 6. alegazioa: UGT sindikatuak 2021eko urtarrilaren 28an egina

## **1.- HERRITAR BATEK EGINDAKO ALEGAZIOAREN ERANTZUNA:**

### **1. ekarpena:**

"Hurbiltasun geografikoaren irizpidearen balorazioa" (14. artikulua) hobeki definitzea proiektuan.

ERANTZUNA: Ukatua.

Aipatutako foru dekretua garatzeko foru aginduan zehaztuko da nola baloratuko den hurbiltasun geografikoaren irizpidea.

## **2.- HERRITAR BATEK EGINDAKO ALEGAZIOAREN ERANTZUNA:**

### **1. ekarpena**

Proposatzea Erripagaña, nahiz eta hainbat udalerrirena izan, udalerrri bat balitz bezala hartzea, eta, hortaz, ikastetxeak hurbiltasunaren arabera puntuatzeko irizpidea ez izatea erroldatua zauden herria eta hari dagokion ikastetxea, baizik auzoa hartzea unitate gisa; izan ere, segun eta zein herritan zauden erroldatua, gerta liteke urrunago dagoen ikastetxe bat egokitzea, auzoa aintzat hartuta egokituko litzatekeena baino.

ERANTZUNA: Ukatua.

*Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzeari buruzko uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan ezartzen da ikastetxe publikoen sarea, Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sistema behar bezala emanen dela bermatzeko, irizpide geografikoak eta biztanleria-irizpideak oinarri harturik, haren eranskinean zehaztuta dagoen bezala. Hartara, ikasleak onartzeko foru dekretu honen xedea ez da esparru hau definitzea.*

## **3.- HERRITAR BATEK EGINDAKO ALEGAZIOAREN ERANTZUNA:**

### **1. ekarpena**

Ikastetxean dauden anai-arrebengatik ematen den puntuazioa zegoen bezala utzi behar da. Erditze anizkoitzaren baldintza betetzen duten guztiei 0,8 puntu gehigarri eman behar zaizkie, halakorik balitz.

## 2. ekarpena

Ez dadila murriztuta gelditu familia ugariagatik ematen den puntuazioa. Onuragarria gainerako familiendako, baina ez zaie beste familia batzuei kalterik egin behar. Aurreko puntuazioa bere horretan utzi behar da eta familia-mota berriak gehitu.

ERANTZUNA 1. eta 2. ekarpenei: Ukatuak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, idazketa kontsolidatuan, "Ekitate hezkuntzan" izeneko II. tituluan, ezartzen du hezkuntza-administrazioek zer irizpide erabili behar dituzten ikasleak onartzeko prozeduran eta, aldi berean, eskabideen baremaziotik ateratako puntuazioan gehieneko ehunekoak ezartzen ditu onarpen prozesuan aski ikaspostu ez dagoenean aplikatzeko. Hartara, irizpide horietako bakar bat ere ez da baztergarria izanen eta ez da gehieneko puntuazio osoaren %30 baino handiagoa izanen, salbu eta bizilekuaren hurbiltasunaren irizpidea, zeinak muga hori gaindi baitezake. Ikasleak onartzeko gaur egungo foru dekretuan 1 puntu ematen zaio (halaxe ageri da 13.bis artikuluan). Foru dekretuan 0,8 puntu ematen zaizkio. Familia ugariaren balorazioa 0,2 puntu jaitsi da. Hala ere, aurreko araudian ez zeuden beste egoera batzuk sartu dira orain eta, horrenbestez, pisu erlatiboak aldatu dira, bere osotasunean hartuta. Orain familia-egoerek 3,2 puntu egiten dute.

Bestalde, lehenetasuneko irizpideen puntuazioak ez dira baztergarriak beren artean, familia-mota guztiak kontuan hartuz, familia bakoitzak bakarka izan ditzakeen egoera guztiak biltzen baititu. Hori da esleitutako puntuazioak murriztearen arrazoia. Hezkuntza Departamentua beharturik dago apartatu horiek sartzera, lege organikoak behartuta.

## 3. ekarpena:

Ikasleak onartzerakoan kontuan hartu da gurasoen lantokiaren hurbiltasun-printzipioa -familia eta lana uztartzen dira horrela-. Ez dut ulertzen zergatik ez diren familia-kontziliazio horretaz baliatzen irakasleak.

ERANTZUNA: Ukatua.

Irakasleen kontziliazioari dagokionez, lehentasunezko irizpidea da eta ikastetxean lanean ari diren aitei, amei edo legezko tutoreei dagokiena berariaz puntuatzen da. Puntuazio horrekin erraztu nahi da familia-kontziliazioa. Horretaz gainera, aukera dago beste bi irizpideekin batera puntuatzeko, hots, bizilekuaren hurbiltasunarenarekin eta aiten, amen edo legezko tutoreen lantokiarenarekin.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren testu kontsolidatuko 84.2 artikuluan ezartzen du irizpide horietako bakar bat ere ez dela baztergarria izanen eta ez da gehieneko puntuazio osoaren %30 baino handiagoa izanen, salbu eta bizilekuaren hurbiltasunaren irizpidea, zeinak muga hori gaindi baitezake. Foru dekretuan islatutako irizpideen eta haien puntuazioaren definizioan kontuan izan da oinarritzko arau hau.

#### **4.- HERRITAR BATEK EGINDAKO ALEGAZIOAREN ERANTZUNA:**

##### **1. ekarpena:**

Beraz, eskatzen dugu lerroak irekitzeko prozesua arautzea kontuan hartuz Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan ezartzen diren sustapen- eta promozio-irizpideei jarraikiz. Hala eginez gero, Nafarroako berezko hizkuntzetako bat ikasteko aukera-berdintasuna bermatuko litzateke; izan ere, berezko hizkuntza hori sustatzea eta babestea administrazioari dagokio.

ERANTZUNA: Ukatua.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 27.3 artikuluan adierazten da "autonomia-erkidegoen lurralde-esparruko irakaskuntzaren programazio orokorrak beti ezarriko duela eskola-postuen programazio berezia; programazio horretan zehaztuko da eskola-postu horiek zein eskualde, udalerrri eta gunetan sortu behar diren.

Doako mailetan sortu berri diren eskola-postuen programazio bereziak, edozein kasutan, kontuan hartu beharko du zentro publikoen eta itunpeko zentroen eskaintza."

Beraz, hezkuntza-administrazioei dagokie, beren eskumen-esparruan, hezkuntza eskaintza arautzea. Halaxe egin du *Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuak*. Haren idazketan kontuan hartu da: *"Berrantolamendu hori egin beharra ekarri duen beste arrazoietakoa bat hauxe da: Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sistamarako onetsi diren hizkuntza-ereduen eskaintza nola garatu den, eredu horiek handituz edo txikituz, ikastetxeak lehenengo aldiz berrantolatu zirenetik gaur egunera arte. Aurreko puntuan adierazitako zergatiaren euskarri moduan, Euskarari buruzko irailaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 26. artikuluan, otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legearen bidez aldatutakoan, zehazten da "Euskararen irakaskuntza bultzatua izanen dela, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantzatua, sustapen- eta promozio-irizpideei jarraikiz eta eskarien arabera". Horrek berekin ekarri du euskarazko D hizkuntza-ereduaren eskaintza aldatzea Nafarroako eremu geografiko batean, zeinetan legealdaketa hori egin arte ez baitzen ikastetxe publikoen sarean D eredu eskaintzen."*

Foru dekretu honen xedea ez da ikastetxeetan lerroen irekiera arautzea.

Familiek ikastetxeak askatasunez aukeratzeari dagokionez, foru dekretu hau garatzen duen foru aginduan ezarriko da hezkuntza administrazioak zehaztu beharko dituela zenbat ikaspostu huts egonen den Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen ikasmailan.

## **5.- BEHATOKIA FUNDAZIOAK EGINDAKO ALEGAZIOAREN ERANTZUNA:**

### **1. ekarpena - 2. artikuluko b apartatua:** gorriz dagoena gehitu.

*Eskaera egiteko unean ikastetxe bakoitzean indarrean dauden hizkuntza-ereduek ez dute baldintzatuko ikastetxea askatasunez aukeratu ahal izatea. Ikastetxe bakoitzean eskainitako hizkuntza-ereduak aldatu ahal izango dira, hizkuntzagatiko diskriminaziorik eza eta aukera berdintasuna bermatzeko.*

ERANTZUNA: Ukatua.

Familiek aukeran duten hezkuntza eskaintza urtero ezartzen da, Hezkuntza Departamentuak zehazten duen hezkuntzako programazioan. Etorkizunean garatuko da foru dekretua eta hartan ezarriko dira ikastetxe bakoitzean zenbat ikaspostu huts egonen den Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen ikasmilan, Hezkuntza Departamentuak ezarritako hezkuntza eskaintzaren barnean. Eskaintza horretatik aukeratuko dituzte familiek, haien behar edo interesen arabera.

**2. ekarpena - 5. artikuluko b apartatua:** gorriz dagoena gehitu.

*Eskatzaile bakoitzak nahi duen hizkuntza-eredua aukeratu ahal izango du, eskaera egiteko unean ikastetxe bakoitzean indarrean dagoen hizkuntza-ereduaren eskaintza derrigorrezko baldintzatzaile izan gabe.*

ERANTZUNA: Ukatua.

Familiek aukeran duten hezkuntza eskaintza urtero ezartzen da Hezkuntza Departamentuak zehazten duen hezkuntzako programazio orokorraren arabera. Etorkizunean garatuko da foru dekretua eta hartan ezarriko dira ikastetxe bakoitzean zenbat ikaspostu huts egonen den Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen ikasmilan, Hezkuntza Departamentuak ezarritako hezkuntza eskaintzaren barnean. Eskaintza horretatik aukeratuko dituzte familiek, haien behar edo interesen arabera.

**3. ekarpena - 35.1. artikulua:** gorriz dagoena gehitu.

*Era berean, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen hizkuntza-eredua une oro bermatzeko behar diren neurriak hartuko dira, inolako kalterik eragin gabe.*

ERANTZUNA: Ukatua.

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleendako neurriak ikasleen ezaugarrien araberakoak dira, edozein izanik ere laguntza horiek zein hizkuntza-eredutan ematen diren eta, orobat, ez dira foru dekretu honen xede.

**4. ekarpena - 3.2. artikuluko g letra, 32.1 eta 32.2 b letra:** gorriz dagoena gehitu.

*Ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik, **hizkuntzagatiko** arrazoiengatik edo bestelakoengatik ez bereiztea.*

ERANTZUNA: Ukatua.

Bestelako arrazoiaren artean sartuta daude egon litezkeen berariazko arrazoi guztiak.

## **6.- UGT SINDIKATUAREN Irakaskuntza Federazioaren ALEGAZIOAREN ERANTZUNA**

### **1. ekarpena:**

Ikastetxean lan egiten duten aita, ama edo legezko tutoreen puntuazioa 4 puntukoa izatetik 0,8koa izatera pasatu da. LOMLOEk 84. artikuluko 2. puntuan ezartzen du irizpide bakar bat ere ez dela gehieneko puntuazio osoaren %30 baino handiagoa izanen, bizilekurako hurbiltasunari dagokiona izan ezin. Uste dugu horrek tartea uzten duela konputu hori ezarritako 0,8tik gora hobetzeko.

ERANTZUNA: Ukatua.

Irakasleen kontziliazioari dagokionez, lehentasunezko irizpidea da eta ikastetxean lanean ari diren aitei, amei edo legezko tutoreei dagokiena berariaz puntuatzen da. Puntuazio horrekin erraztu nahi da familia-kontziliazioa. Horretaz gainera, aukera dago beste bi irizpideekin batera puntuatzeko, hots, bizilekuaren hurbiltasunarekin eta aiten, amen edo legezko tutoreen lantokiarekin.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren testu kontsolidatuko 84.2 artikuluan ezartzen du irizpide bakar bat ere ez dela baztergarria izanen eta ez dela gehieneko puntuazio osoaren %30 baino handiagoa izanen, salbu eta bizilekuaren hurbiltasunaren irizpidea, zeinak muga hori gaindi baitezake. Foru dekretuan islatutako irizpideen eta haien puntuazioaren definizioan kontuan izan da oinarritzko arau hau.

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an.

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN  
ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Alberto Urrutia Lecumberri  
(sinadura jatorrizkoan  
dago)